

1.º Saria Dialektologia
"Beruetekeo Lapurreak"
Jasoz Miren Jauregi
Iruine b 1

8

BERUETEKO LAPURRAK

Er /haukribeketa, or de
oro indela.

Xarela
10

BERUETEKO LAPURRAK

Oh Jesus ! Hori neonek ibilia haiekin, luzea den Berueteko lapurren kontuek !

Berueteko lapurren gauzak kontatuko ñet. Lehenbiziko nere aittena (Martzelino Arbillarena).

Joan Illarregitik gizon bat (aittona) idi pare bat saltzera Irurtzune, ta Berueteko lapurrek erreparatu zer egiten zun ta Erbitiko murallan ondotik atra Berueteko lapurrek, kendua kentzera. Kendu zioten, lotu zuten, amarratu zuten gizona (aittona) ikendu zioten beran kartera eta apaitzendako ekartzen zuen karta bat.

Ezagutu zituen, Berueteko lapurrak zirela. (Bai gure aittei pastue). Ta mantatxo bat ekartzen omen zuen ta hore bota omen zioten idiei, Idiei hartzen zituenari bizkarrera eta Bera (aitta) kuerdekin lotu. Dena hankak eta besoak atzera. Mantxo mantxo, arrastan allegatu zen Illaregiraino.

Segituan anitz jende etori zitzaizkion zautu bazituen erraiteko nor ziren. Baina ezen fidatu iñoreri ere erratea. Baña zautu zituen nor ziren.

Gero, jende hoyek ainbertze urte buruan geroken itxera, eta bordara ardiek ebastera ibili ziren, hiru lau anaiek.

(Orain guk ezagututako mutil bateri egin ziotena)

Mendian lan ein ondoren in tzuten itxolan kontuek (diruenak), eta heldu ziren lapurrak eta mutil hori itxaldera, eta leizean ondoan pastian anale batek bertzeari keñu ein eta lepoa moztu zioten mutil horrei eta bota zuten leizera.

Mutil horren familia, omen ziren beti ohianetan ikatza egiten aitzen zirenak eta haiendakako (lapurrendako) mutilla joana zela lanera. Ta gero mutilla falta. Ez etortzen etxera. Ta mutillei kendutako dirukin hayen makumiak Iruñera konpra majoak ittera.

(Bitartean familia horrek galdezka mutilla non ote zen eta idiekin heldu zen gizon bati galdetu zioten ia mutillaren berriak bazekien). Ta gero (gizon honek) erran ziola segidoan, "ez duzie mutik harrenik gehiago ikusiko hayek hil izin dute". Erran bezela.

Bertze anaie bat hartu ta Guardia Zibillek eta guriak errab bezela, mendiz mendi beraiekin ibili zirela, eta zuloa harren ondoan pastian, (lapurek) batek bertzeari keñu egin ziotela. Segituan pentsatu zuten Guardia Zibillek : " " " "Hementxe izin de" _ Orduan deklaratu zutela han zutela, hille. Bere haietakoa bota kuerdekin ta atra zuela, bere hayetako batek.

Hori pastean Guardia Zibillek eman zituztela Iruñera, hiru anaiek (lapurrak) eta Illaregin parean pastian erran zutela "harako borda artatik (gure aitarena) magiña ardi eder eman diau; ez diagu gehiago emain". Eta segidan gure attak zautu zuela hayek izango zirela. Ta hayek atra. Gero Iruñean lerroan ahorkatu zituzten. Lerroan enterratu zituzten Iruñeko kanpo santuen, hiruek lerroan.

Guri osaba batekematen zigun enterratuik non zeuden ikustera eta ainbertze urtez gerogo ez zela atratzen belarrik hayen parean, hayek enterratu zauden lekuan.

- Hola akabatu ziren ! Orain iaatzendu izanen da, bai !

(Orain beste istoria bat hayena)

Hemen berian ze lapurketak egiten zuten Berueten eta ez ziren atrebitzen jendeak deus erratera. Deus erratera! Ta guriazienda aunitz ebatsi ziguten hayek !

Egun batez, bordan anaye gelditzen zen eskopetakin, kasiten aziendai. Joan ziren sartzera sabaietik ta nere anaia, beraiei tiratu tiroa, eta " el único kartutxo zuena", ezuen horixe bestei baña, ez zekiten (lapurrek) bazuen geyago eziren bajatu bettire ta horrek salbatu zituen, " harrek salbatu zituen".

Eta ni, elur lapizte bat zeon, elur lapizte bat ni joan nintzen bordara anaien desayunoarekin, eta pentsue ardienarekin. Bordako atarien dena zapeta marka. Egon nintzen ba: "Orantxe hil izan dittek", beño hori gertatu zen eta hala joan ziren gayagokoik in gabe, berriz joan ziren.

Etortzen zielaik tellatu gañera botatzen zituzten yoaliak. Gañera botatzen zituzten yoaleak zituenak etaazienda bere naizutena eman behar zizuten. Ta fuera !

Gero karri giñuzen etxera ardiek.

- Nola itxira ! Itxian " lo mismo" !

Axuriek barnean ! Ardiek estalpean ! Ta ze soñuek ta bildurrek ! Ze kalamidadeak ! azuri hayek hartu ta emateko ! itxa barnera !

Palanka haundi bat bazuen atariek, burni handie. Ta hasten zirenean sartzen hore botatzen zen. Orduan goartzen ziren (etxekoek) (axuriek barnean bazeuzkaten) eman behar zituztela handik hartuta.

Gauza tristeak, oso tristeak. Gure aitek errateko "mutikohore jende hayek hil izin zutela" ! Zergatik berak pasatu zituenkalamidadeak ! ta hala hai diren pasten gero ere eta gero Illarregiko zelaien harata zamatzatelarik berek deklaratu zuten: berek zifiek.

Saioa Miren IZA ERBITI

Eskirotz, 28-2º-G IRUÑA

BBB 3º - ITURRAMA INSTITUTOA - IRUÑA